



L'ÉGLISE SAINT-ÉTIENNE D'ESPELETTE

L'église Saint-Étienne a bien l'allure d'une forteresse par l'épaisseur de ses murs et de ses contreforts. Son clocher-porche, d'architecture carrée et massive abrite un des plus beaux portails du pays. La date de 1627 inscrite sur ce dernier, est celle de sa reconstruction.

Le corps du bâtiment est, lui, antérieur à cette date, sans que l'on puisse avancer une date certaine. Un arrêt du Parlement de Bordeaux en date du 20 mai 1593 est là pour nous certifier son existence. Cet arrêté stipulait à l'encontre des cagots des mesures

discriminatoires, comme le port d'un signal rouge sur leurs « accoutrements » et l'attribution d'une porte d'entrée à l'église qui existe toujours à gauche dans la nef.

L'église est dédiée au diacre Saint-Étienne, premier martyr : en 1090, Dona Toda de Huarte (épouse de Don Aznar, le plus ancien seigneur d'Espelette) fit don au monastère de Saint-Sauveur de Leyre en Navarre, du couvent de Huarte consacré à Saint-Étienne (avec toutes ses dépendances ainsi que des moulins neufs situés à Ezpeleta). Quel est le vocable le plus ancien : celui de l'église d'Ezpeleta ou celui du couvent de Huarte ?

Le toponyme *Espelette* apparaît sous les formes *Spelette* et *Espelete* (respectivement 1233 et 1256, cartulaire de Bayonne), *Ezpeleta* (1384, collection Duchesne volume CX), *Ispelette* (1465, chapitre de Bayonne), *Espelette* (1650, carte du *Gouvernement Général de Guienne et Guascogne et Pays circonvoisins*), *Sanctus Stephanus d'Espelette* (1764, collations du diocèse de Bayonne) et *Ezpeleta* au XIX^e siècle.

EZPELETAKO JONDONI EXTEBE ELIZA



Murrue eta hauen ostikoen loditasunak gaztelu baten itxura ematen dio Jondoni Extebe elizari. Kalustra dorre laukrado handia 1627an eraikia izana da, harri gogorrez behereko aldearentzat eta beste nonbeit bildu harriz gainekaldearentzat.

Eliza gorputza lehenagokoa da, nehorik ezin erran zuzen noizkoa. Bordaleko Parlamentuaren arresta batek segurtatzen dauku 1593ko maiatzaren 20an hor zegoela jadanik. Arresta batek erabaki batzuz hartzen zituen agoten kontra, hala nola seinale gorri bat behar zutela beren trasteen gainetik eta ate berezi bat izanen zutela elizan sartzeko.

Jondoni Extebe lehen martirioa du bere patroia elizak. 1090an Huarteko Jondoni Extebe Komentua eman zion Leyre-ko Jondoni Salvatore fraile etxeari Nafarroan, Doña Toda de Huarte-k, Don Aznar, ezagutzen dugun Ezpeletako lehen jaunaren emazteak. Komentua, bere ontasunarekin eta Ezpeletan ziren eihera berriekin. Zein da izenik zaharrena ? Ezpeletako eliza ala Huarteko komentua ?

Espelette toponimoa edo leku-izena agertzen da *Spelette* eta *Espelete* moldeetan (hurrenez hurren 1233 eta 1256, Baionako kartularioa), *Ezpeleta* (1384, Duchesne saila CX liburukia), *Ispelette* (1465, Baionako kapitulua), *Espelette* (1650, *Gouvernement Général de Guienne et Guascogne et Pays circonvoisins* mapa), *Sanctus Stephanus d'Espelette* (1764, Baionako elizbarrutiko bildumak) eta *Ezpeleta* XIX. mendean.

Quelques points de repères :		Erreferentzi puntu batzu :
Arrêt du Parlement de Bordeaux mentionnant l'église d'Espelette.	1593	Bordaleko Parlamentuaren Erabakian aipu da Ezpeletako eliza.
Construction du clocher-porche.	1627	Ezkila dorre-apirikuaren eraikuntza.
Mise en place des retables et de tribunes.	XVII-XVIII	Erretaula eta galerien tokian jartzea.
Christ en croix, bois sculpté du XVIIe (à l'entrée de l'église à gauche), témoignage émouvant des missions prêchées par les prêtres de Larressore à la demande de Jean Galan, marchand béarnais et maître de la maison Belçarenia d'Espelette, demande effectuée à l'abbé Jean Daguerre, fondateur du séminaire de Larressore (Acte de 1756 du Maître Harriet notaire royal à Larressore).	Milieu du XVIIIe	Kristo gurutzizatua, XVII. mendeko zur zizelkatua (eliza sartzean ezker), Larresoroko apezek predikatu misioeetaz lekukotasun hunkigarria Jean Galan-ek galdeginik (biarnoar saltzailea, Ezpeletako Belzarenia etxearen jabea), Jean Daguerre apezak, Larresoroko semenarioaren sortzaileak, eginikako eskaera (Harriet Larresoroko errege notario jaunak 1756ean idatzi Agiria).
Mise en place de la chaire à prêcher.	Fin XVIIIe	Prediku alkiaren tokian jartzea.
Peintures de la voûte du chœur et de la nef (don de la famille Palassie). Rajout de la chapelle Saint Joseph et de la sacristie.	Fin XIXe	Elizako ganga eta nabearen margotzeak (Palassie familiaren emaitza). San Josep kaperaren eta sakristiaren eranstea.
Mise en place et baptême des deux cloches.	1874	Bi ezكيلen tokian jartzea eta bataiatzea.
Don à la paroisse par les Barons d'Ezpeleta du tableau de José de Ribera (1591-1652) : « Saint Jérôme entendant les trompettes du Jugement dernier ».	1884	Ezpeletako Baroiek parropiari eskaini emaitza: "San Jeronimo azken Jujamenduko tronpetak entzuten" José de Riberaren (1591-1652) margolana.
Don à la paroisse par le Chanoine Jean-Baptiste Daranatz (1870-1945) du tableau de Joseph Uberti, peintre turinois du XIXe : « Saint François-Xavier et Saint Ignace de Loyola lors de leur séjour à Paris ».	1903	Jean-Baptiste Daranatz Kalonjeak (1870-1945) parropiari eskaini emaitza: "San Frantses Xabierekoa eta San Iñaki Loiolakoa Parisko egonaldian" Joseph Uberti XIX. mendeko margolari Turinoarraren margolana.
Eglise inscrite à l'inventaire des Monuments Historiques.	19 mai 1925	Eliza Monumentu Historikoen inbentarioan sailkatua.
Travaux suite à la réforme liturgique du Concile Vatican II. Création de l'autel avec les anciens autels latéraux. Découverte de la vasque baptismale.	Années 1970	Batikanoko II. Kontzilioak bideratu liturgi erreformaren ondoriozko obrak. Aldarearen muntatzea bazterretako aldare ohiekin. Bataio askaren aurkikuntza.
Mise en place du tableau de Joseph Laulié « L'adoration des bergers à Bethléem ».	1974	"Artzainen adorazionea Bethlemen" Joseph Lauliéren margolanaren tokian jartzea.
Réfection des toitures, des charpentes, de la zinguerie et des salles du clocher, mise à nu des pierres du côté latéral droit, réfection de l'électricité et de la sonorisation.	Années 1990	Teilatuena, zureriaren, zinkeriaren eta ezkila dorreko gelen berritzea, eskuin bazter aldeko harrien agerian jartzea, elektrika eta soinu tresneriaren berritzea.
Restauration complète des retables, du triptyque représentant la naissance de Saint Jean-Baptiste (fin XVe-début XVIe) et de la voûte du chœur par la D.R.A.C. (Direction Régionale des Affaires Culturelles). Création d'un ambon, nettoyage et restauration des statues de la Vierge (à l'entrée) et de Saint Joseph ainsi que des deux Crucifix, restauration des six chandeliers et création du chandelier pour le cierge pascal par la paroisse.	2008	Erretaulen, Jondoni Joanes Batistaren sortzea itxuratzen duen triptikoaren (XV. mende ondar-XVI. mende hastapeneko) eta elizako gangaren berrizatze osoa D.R.A.C. erakundeak kudeaturik. Parropiak kudeaturik: Hitz-Alkiaren muntatzea, Maria Birjinaren (sartzean) eta San Josepen estatuen eta bi Gurutzeen garbiketa eta berrizatzea, sei ganderailuen berrizatzea eta Pazko xirioaren muntatzea.
Restauration de la chapelle Saint Joseph, du lutrin du XVIIIe, de la chaire à prêcher du XVIIIe, de la porte d'entrée, de la Vierge à l'Enfant du XVIIIe par la D.R.A.C. Mise aux normes de sécurité incendie.	2009 2010	D.R.A.C. erakundeak kudeaturik, San Josep kaperaren, XVIII. mendeko kantaderaren, XVIII. mendeko prediku alkiaren, saratearen eta XVIII. mendeko Birjina-Haurdunaren berrizatzea.
Mise en place des 14 stations du Chemin de Croix réalisées par Léa Sham's.	Août 2014	Léa Sham's andereak sortu Gurutze Bidearen 14 estazioen tokian jartzea.
Eglise classée Monument Historique.	2015	Eliza Monumentu Historiko gisa sailkatua.
Don à l'église par le Cardinal Roger Etchegaray d'une icône du XVIe siècle de l'école crétoise représentant la Nativité du Christ.	2017 21 sept.	2017an Roger Etchegaray Kardinalak eliza eskaini emaitza: Kristoren Sortzea itxuratzen duen XVI. mendeko ikonoa, kretoar eskolaren eskulana.
Mise en place de la 15 ^{ème} station du Chemin de Croix réalisé par Léa Sham's et bénédiction de l'ensemble par l'abbé Jauregui.	24 sept.	2017ko buruilararen 24an: Léa Sham's andereak sortu Gurutze Bidearen 15. estazioaren tokian jartzea eta guzien benedikatzea J. Jauregui jaun apezaren eskutik.
<p align="center">Merci à tous ceux qui oeuvrent à l'entretien et à l'embellissement de notre église : Municipalité, DRAC, Paroisse et vous tous Ezpeletars !</p>		<p align="center">Eskerrik beroenak elizaren zaintze eta apaintze lanetan ari diren guzieri : Herriko Etxe, DRAC, Parrophia, berdin zueri guzieri, Ezpeletar seme-alabak !</p>